



Herri plataformaren mozioari bidea eman diote

Gehiengo zabal batek Gipuzkoako Foru Aldundiko C2 izeneko egitasmoa geratzeko mozioarekin bat egin du / 2-6

AIURRI

Sorabilla-Errotagain

Auzo elkarteko ordezkarietako elkarrizketa, C2 egitasmoaren harira / 4-5

Jokin Lizeaga
korrikalariaren
itzulera, eta,
zuzen-zuzenean,
podiumera / 10-11

Ainhoa Manterola:
"Euskaraldian kaleak
euskaraz aritzeko
espazio bilakatu nahi
ditugu" / 7

IRAILAK 21. ALZHEIMERRAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**Zure burua
zaintzen
baduzu,
Alzheimerrak
atzera
egiten du**

Andoain
2022

Irailak 20, asteartea

Zinea: EL CUARTETO
(Dobalnik, gonbidapenak aurrez har daitezke)

Irailak 22, osteguna

**HITZALDIA: "Alzheimer gaixotasuna:
sintomak eta terapiak"**

Hizlaria: **GURUTZ LINAZASORO Neurologoa**

Irailak 27, asteartea

**HITZALDIA: "Prebentzioa, lapurreta
eta iruzurrak adinekoei"**

Hizlaria: **Ertzaintzako kideak**

EKITALDI GUZTIAK BASTERON, 18:00



Andoaingo Udalak
eta jubilatuen bi
elkarteek antolatzen dute





Irailaren 12an ez ohiko plenoa egin zen Andoainen. Herri plataformak mezu argia zeraman pankartan. C2 egitasmoa kaxoian sartzeari eskatzen dute. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ekimen beteko astelehena izan zen irailaren 12koa. Bazkardon sortzen den trafiko arazoa oso handia da, eta hori agerian geratu zen irailaren 11ko iluntzean. Tolosarrek, goierritarrek eta nafarrek Donostiako estropadatan egon eta gero, Andoaingo N1 kotxez ito zuten. Irtenbidea? Gidarientzat trafiko arazo potoloa da. Baina andoaindarrentzat hori baino gehiago da. Izan ere, irtenbidea emateko Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen egitasmoak hautsak harrotu ditu. Aurkeztu den proposamenarekin kaltetuak ez dira gutxi, eta modu batera eta bestera erreakzionatzen hasi ziren. Begirada atzera botaz, gobernu taldeko kideek ez zuten Andoainen bizilagun askok bizi duten egoeraren tamaina aurreikusitakoak. Zarata akustikoaren aurkako 5.000 sinaduren ekimen hura bueltan da. Bueltan da, eraldatuta eta nabarmen hazita. Inaki Perez de Eulate dute bozeramaile, andoaindar askoren etsipena aldarazi duen andoaindarra. Hizlari bikaina da, gurasokeriz aritzen denean salbu. Gai karamilatsu honetan dohai bat erakusten ari da: oso ondo daki zertaz ari den. Haren argudioei aurre egitea ez da batere erraza, eta batzorde eta plenoetan egiten duen galderari ez dio oraindik inork erantzun. "C2 egitasmoaren onurarik ez dugu entzun. Zein onura du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitasmoak?". Eta erantzuna airean geratzen da.

C2 egitasmoa geraraztea onartu zen plenoan

"C2 proiektuarekin planifikatutako ekintza guztiak gelditu ditzala" eskatu dio Andoaingo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Sortu berri den herri plataformak aurkeztu zuen mozioa, eta orain ikusteke dago mozioak zein bide izango duen

Herri plataformak denbora tarte txikian egin duen sentsibilizazio lana oso handia izan da, eta 451 herrikideren alegazioak biltzea lortu du. Diotenez, Correos bidez egunero-egunero 40-50 alegazio inguru iristen ari ziren okasiorako zabaldu duten

HERRI PLATAFORMAK DENBORA TARTE TXIKIAN EGIN DUEN LANA OSO HANDIA IZAN DA

posta-kutxara. Ez-ohiko plenoa deitzea lortu zuten, mozioa eztabaidatzeko.

Eta, orain, zer?

Zer nolako garrantzia du mozioak? Erabakiorra izango da? Aldundiak zenbateraino hartuko du hori kontuan? Plataforma noraino iristeko prest dago? Eta Udal ordezkariak? Eta alkatea?

Mozioaren bigarren puntua oso argia da: "C2 proiektuarekin planifikatutako ekintza guztiak gelditu ditzala eskatu Diputazioari, Plangintza Orokorrean azal-

tzen diren jarduera-ildoekin bat letorkeen proiektu berri bat birpentsatu eta idatzi ahal izateko". Ildo beretik doa Udal arkitektoaren ondorio nagusia.

Alderdi politikoen artean, izango da oposizioa egitea oso erraza dela dioenik. Gai honetan,

BERRIRO ERE ANDOAIN JASANGARRI BATEN ALDEKO MUGIMENDUA MARTXAN DA

ordea, herrian dagoen haserrearen antzematen jakin dute. EH Bilduk agintaldi osoa darama gaiari heltzeko mahai berezia sortu behar dela eskatzen. Perez de Eulatek mozioa onartu eta berehala gauza bera eskatu zuen.

Alderdi sozialistaren kasuan behin eta berriro diote C2 egitasmoa ez dutela gogoko, baina astelehenean ikaragarri kosta zitzaie mozioaren alde zeudela berbalizatzea. Jeltzaleak Aldundiaren egitasmoarekin bat agertu dira beti, baina azken egunetan oso ondo neurtzen ari dira ematen dituzten pausoak. Jakitun dira haserre daudenen jomuga daudela.

Alegazio fasea amaitzean da eta Udala eta gizarte eragileak alegazio orokorrak eta partzialak jasotzen aritu dira. Gipuzkoako Foru Aldundian, dagokion bulegoan, lanik ez zaie faltako.

Lehen txanpa honetan plataformak abantaila hartu du. Eta aurrera egiteko prest daude, abokatu-talde baten gidaritzapean. Eskarmentua badute, lehen ere ezerezean geratu direlako beste garaipen moral batzuk. Bikain azaldu zuen hori plenoan Josune Agirre Mimendiko auzotarrak. Bere senarrarekin batera zarataren aurka 5.000 sinadura biltzea lortu zuten. Eskaera haiek gauzatu gabe daude oraindik. Honakoa bota zuten Udal ordezkariak, asteleheneko ez ohiko plenoan: "Eskerririk asko plenoan hitz egiteko aukera emateagatik. Ez nuke, ordea, soilik hitz egiteko aukera izaterik, baizik eta diogunari jaramon egitea". Txaloak entzun ziren.

Andoain bizigarri baten aldeko mugimendua martxan da, berriro ere. Eta Udal ordezkariak begira daude. Gaurko, Andoaingo PSE-EE eta EAJ-PNVren artean arrakala ekarri du ez ohiko plenoaren bozketak. Sozialistek plataformaren mozioa onartu izana ez da jeltzaleen gogoko izan. Foru Aldunditik astelehenean Aita Larramendi ikastolako panelen aurrean Udalaren aurka ateratu zuen oharra arrakala horren isla da. Alkatea ez da atzean geratu erantzunean, eta C2ren aurkako jarrera argiago erakutsi du.

Epe erdira, ingurumen eta zaratari buruzko kalteak bideratuko direla dirudi. Hirigintza ikuspegitik Andoain zenbateraino izango den duguna baino hobea, hori ikusteke dago.

Plataformak aurkeztutako mozioa

Andoingo Udalak, 2011ko martxoaren 19an egindako Batzar Orokorrean, Hiri Antolamendu Orokorrean Plangintza onartu zuen, gaur egun indarrean dagoena. Plangintza horretan Andoingo lurretan N1-aren trazatuaren eta A15-arekin lotura nola konpondu litekeen azaltzen da. Gaur egungo trazatuak kezka handia eta eragina sortzen du Andoingo herrian, batez ere kutsadura, bai airearena zein zaratararena, gehien jasaten dutenen artean.

Guk herritar plataforma osatu dugu helburu honetarako: irtenbide onargarri eta iraunkor bat aurkitu eta bultzatu Andoaindik pasatzen diren N1 eta A15 azpiegituren arteko loturarentzat, iparraldekoak, bai hegoaldekoak, beti ere indarrean dagoen Andoingo Hiriantolamendu Orokorrean Plangintzak bilatzen zituen helburuak errespetatuz. Gipuzkoako Diputazioak aurkeztutako C2 proiektua, orain bertan esposizio publikoan dagoena, Plangintza Orokorrean onartutakoaren xedeen aurka dagoela iruditzen zaigu.

Horregatik eskatzen diogu Andoingo Udaltzari ondorengo puntu hauen aldeko erabakia, kargu publiko direnez, Plangintza Orokorrean azaltzen den Andoingo herriaren interesa defendatzeko.

1. Aurkeztu berri den eta gaur egun aurkezpen publikoko fasean dagoen C2 proiektua, gizarte, merkataritza edo industri mailan hobekuntza nabarmenak suposatuko lituzketen balizko herriko barne mugikortasun eta hirigintzako garapen ekintzak galaraziko lituzkeen atzera bueltarik gabeko mugarri bat kontsideratzea. Ekintza hauek, beti ere, Andoingo herritarren kohesioa lukete helburu.
2. C2 proiektuarekin planifikatutako ekintza guztiak gelditu eskatu Gipuzkoako Diputazioari, Plangintza Orokorrean azaltzen diren jarduerak-ildoei bat letorkeen gaur eguneratutako proiektu berri bat birpentsatu eta idatzi ahal izateko.
3. Udal korporazio gisa, 2011ko martxoaren 19ko osoko bilkuran onartutako Hirigintza Plana lehenestea eta defendatzea, honek bilatzen zituen xedeekin bat letorkeen N1-arentzako eta A15arekin duen loturarentzako Andoaindik ibilbide bat bultzatzea. Ibilbide berri honek, 2011ko Hirigintza Planean onartutakoa eguneratu behar luke, ibilbide honi dagokion zirkulazio fluxu naturalera dimentsionatuz, gaur egungo arauen arabera jasangarri bilakatuz, ingurugiroan eta herritarren interesetan ahalik eta eragin txikiak izan ditzan.
4. Errepide azpiegiturarentzako adostutako irtenbidearen nahitaezko prozedimendu eta behin behineko egikaritza burutu artean, gaur egungoak Andoingo bere zeharkaldian Buruntza, Mimendi, Larramendi Ikastola, Ubitarteko kirol gunea, Karrika eta Sorabilla bezalako eremuetan eragiten duen soinu kutsadura larria konpontzeko neurriak eska diezaizkiola GFARI, horretarako beharrezko baliabideak ipiniz atzerapen gehiago gabe.

Udal ordezkarien adierazpenak ez ohiko plenoan

13 botorekin onartu zen mozioa (EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos), eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV)

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aiurri.eus gunean saioaren kronika argitaratu zen. Hona adierazpen horietatik guztietatik laburpena. Mozioa Herri Plataformak aurkeztu eta defendatu zuen.

PSE-EE | Alde

“Maiz errepikatu dugunez, ez dugu gogoko egitasmoa C2 egitasmoa. Ez gaitu asebetetzen. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra da gure abiapuntua, eta hor Andoain nola egituratu eta batu behar den agertzen da. Aldundiaren egitasmoak ez ditu Planaren alor asko jasotzen.

Andoingo Saihesbidea delakoa egokitu eta eguneratu egin behar da, legeria aldetik berrikuntzak izan direlako. C2ri ezetz esatea beharrezkoa da, baina alegazioak ez dira soilik ezezkoren bidetik joan behar. Talde modura alegazioak aurkeztea defendatzen dugu, alegazioen gastuak zehaztu eta bi egitasmo handien artean alderaketa egin dezagun.

Alor teknikoan Udalak lan handia egin du, ahalik eta alegazio onenak aurkezteko. Udal Arkitektoak eta Ingurumenekoak aurkeztutako helegiteak onartu ditugu”.

Elkarrekin Podemos | Alde

“Eskerrak eman nahi dizkiogu Herri Plataformari, eta herriko elkarte ezberdinei. Eta bereziki erakundeen utzikeria pairatzen ari diren bizilagunei. Mozioa onartzen dugu, eta haien alde

agertuko gara. Posizionamendua eskatzen zaigu, eta gure taldetik argi esan dugu ez gaudela Aldundiaren egitasmoarekin ados. Soilik trafiko mailako arazo bati ematen zaio irtenbidea. Txapuz bat konpondu nahi dute beste txapuz batekin. Ez du urrun-tzen trafiko handia, ez du konpontzen zarata akustikoa eta ingurumen mailakoa. Auzuneak gehiago urrunduko dira eta betiko lotuta geratuko gara. Egitasmoa faraonikoa da, eta hori ez da demagogia egitea. Finean, Herri Plataformarekin bat gatoz”.

EH Bildu | Alde

“Eskerrak asko hurbildu direnei eta internet bidez jarraitzen ari zaretenoi. Zarataren kontra sinadurak biltzen aritu zirenak, Sorabilla-Errotagain elkarte eta sortu berri den plataforma... Denekin aberastu da aztergaia eta erdigunean jarri dugu bizi dugun arazoa”. Jarraian, trafikoko izan duen eragina azaltzeari ekin zion Alvarez bozeramaileak. Azken hamarkadatan, Andoingo Udalgintzan egon den adostasun zabala nabarmenduz. EAJ-PNVk 2019an aurkeztu zuen egitasmoari kritika egin zion, eta hori izan da afera honetan arazo nagusia. “Bazkardoko trafiko arazoa ez zen bere garaian konpondu. 2019tik jeltzaleei euren egitasmoa azaltzea eskatu diegu. Hamabost bider gutxienez”. 2020an aurkeztutako mozioa gogoan hartu zuen, eta

orduko hartan sozialistek eta jeltzaleek egindako kritikak gogorarazi zituen.

“Mozioaren alde botoa eman-gu dugu, edukiarekin bat gatzelako”, iragarri zuen gero. Eta zera gaineratu: “Berandu bagoaz ere garaiz gabiltza irtenbidea aurkitzeko”.

EAJ-PNV | Abstentzia

“Arazo handien aurrean tamaina bereko irtenbideak behar dira. Trafikoak garapen handia izan du, eta denok gara horren lekuko. Gobernu ezberdinek ez diote irtenbidea bilatu. Aldundiak bere lehentasunean jarri du Andoain, mugikortasun, afekzio eta zarata-arazoei aurre egiteko irtenbidea emateko”. Aldundiaren jardunbidea defendatzen ari zen Marijose Izagirre bozeramailea. “C2 da alternatibaren lanketa prozesutik atera den soluzio teknikoa. Politikaren helburua da irtenbide eraginkorrak lortzea da. EAJ-tik lidergoa erakutsi genuen saihesbide proposamena osatzean, 15 urte geroago hala egiten dugu, gure alternatiba hura gauzatzea ezinezkoa dela ikusita. Goizean esan dugu ez dugula alegazioei buruz behar bezala hitz egin. Argi izan behar dugu bi arazo ditugula, zarata eta errepidearen ibilbidea. C2 proiektuaren afekzioak zerbaitu dira, saihesbidearen ingurumen-inpaktuak planteatu ere egin gabe. Herri plataforma errespetatzen dugu, eta auzotar guztiek eskubide berdina dituzte. Mozioarekin abstenitu egingo gara. Gauza batzuekin ados gaude, eta beste batzuekin ez hainbeste”.

Goizean Hirigintza Batzordea izan zen, alegazioei buruz jarduteko. Bien kronikak Aiurri.eus gunean daude.

451 bizilagunen babesarekin aurkeztu dute alegazio-sorta

Asteazken eguerdian alegazioen txostena aurkeztu zuen Herri plataformak Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitzan

Erredakzioa ANDOAIN

"Aurrekaririk gabeko atxikimendua jaso dugu herrian, azpiegituraren egungo trazadurak eragiten dituen eraginekiko gogaituta dagoela adierazten duena, baita CII izeneko proiektuak egungo kokalekuan gaindimentsionatzeko sortzen duen arbuioa ere". Herri plataforma pozarren dago jaso duen babesarekin. Denbora tarte txikian plataforma sortu eta herrikide askoren arreta bereganatu dute.

Auzia berbideratzeko garaia dela uste dute. Toki-administrazioak mozioa onartu ondoren eta andoaindaren aldetik atxikimendua jaso ondoren, "plataformak uste du etorkizunean hartu beharreko norabidea argia dela".

Bestalde, gaiarekin zerikusia duten eragile guztiei gonbitea egiten die "andoaindar guztien interesak kontuan hartuko dituen bide bateratuari ekiteko. Bihartik aurrera, plataformak helburu hori lortzeko lan egingo du".



Herri plataformak Aldundian alegazioak aurkeztu zituen unean. AIURRI



Xabier Laka, Laura Corchero eta Aitzol Larrañaga Sorabilla-Errotagain elkarteko kideak, alegazioen txostena eskuetan dutela. Txosten hori osorik irakurri nahi duenak, sorabillatarrak@gmail.com helbidera idatzita eska dezake. AIURRI

"Sorabilla auzoa Andoaingo herriaren eta herritarren biriketako bat da"

SORABILLA-ERROTAGAIN AUZO ELKARTEA

"Dauden azpiegiturak hobetzeak ingurumenean, gizartean eta ekonomian inpaktu txikiagoa eragiten du, errepide berriak eraikitzeak baino", defendatzen dute

Xabier Laka ANDOAIN

Elkarateak deituta, sorabillatarrek batzarra egin zuten Erretoretxean, irailaren 8an. Bertan, elkarteko zuzendaritzak hainbat gogoeta eta sei alegazio biltzen dituen txostena aurkeztu zien auzotarrei, eta horiek ontzat hartu zuten. Laura Corchero, Xabier Laka eta Aitzol Larraña-

ga elkarteko zuzendaritzako kideek txostenaren nondik norakoak azaldu dizkiote Aiurri astekariari.

Txostenaren hasieran diozue "egungo, iraganeko edo etorkizuneko saihebidetaren aukeraren aurka" zaudetela, eta egungo N-1 "berreraikitzen eta eraldatzen duen proiektuaren alde".

Xabier Laka: N1 azpiegituraren gaia hogeitun urte daramagu lantzen, eta beti azaldu gara saihebidetaren aurka, eta egungo N1 egokitzearen alde. Uste dugu dauden azpiegiturak hobetzeak ingurumenean, gizartean eta ekonomian inpaktu txikiagoa eragiten duela, errepide berriak eraikitzeak baino. Printzipio

horri eutsi diogu beti. 2011ko Andoaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra jasotzen duen saihebidetaren aipatzen da hitzetik hortzera, aukera hori onena dela aldarrikatuz. Baina uste dugu Plan hori ezin dela 'Carta Magna' baten antzera hartu, ukiezina balitz bezala; hamaika urte igaro dira, eta ikuspegiak zein sentsibilitateak asko aldatu dira. Ez dezagun urbanismo zaharkitu baten menpe jarraitu, jarri ditzagun ezbaian jarri behar diren alderdiak, eta berritu, berritu behar direnak. Mintza gaitetzen garbi: 2011ko Planean planteatzen den irtenbideak, "zaborra" Sorabillara eramatea dakar. Andoaingo garapen urbanistikoa jartzen da arrazoitzat, baina garapen hori ibaiak alde batera eramaten du, ordainetan, Sorabilla aldean suntsipen paisajistikoa eraginez. Kopuruz hazteak kalitatez haztea dakarrela dirudi, baina ez du zertan hala izan behar. Balio paisajistikoa funtsezko ondarea dugu, eta hori hondatzea 70 eta 80ko hamarkadako desarrollimora itzultzea da.

Laura Corchero: Sorabillako auzoa ez da hor Ori ibaiak bestalde dagoen paisaje polit huts bat. Andoaingo herriaren eta herritarren biriketako bat, Leitzaran izan daitekeen moduan.

Pandemia garaian agerian geratu da andoaindarrentzat zein estimatua den auzo hori aisialdi-gune gisa, osasunari eta ongizateari begira.

Aitzol Larrañaga: Xabierrek garapen urbanistikoa aipatu du, eta ildo horretatik segituz, aitortu behar dugu mingarria egiten zaigula Andoaingo garapen urbanistikoa aurka gaudela entzuteak, hori ez delako batere egia. Informazio falta dago, eta batzuek eta besteek defendatzen dutenaren gaineko pedagogia falta dela iruditzen zaigu.

Astelehen goizean udaletxean egin zen hirigintza batzordean, "kanpoko saihebidetaren" ez, baizik eta "Sorabillako saihebidetaren" izendatu beharko litzatekela azpimarratu nahi izan zuen elkarteko kide batek.

L.C.: Eta arrazoi zuen. Eufemismoak alde batera utzi beharko litzatekeela uste dugu. Proiektuan, Udalak bere idatzietan eta zenbaitzuek ere hala aipatzen dute, eta horrela entzunda, proposamena erakargarria-eta guzti egiten zaigu, hartzen baita irudipena herritik kanpo eramaten dela saihebidetaren, arazoa kanpora eramaten dela. Baina egiazki, Andoaingo herritarrek bizi diren auzo batera eramaten da saihebidetaren hori, eta aspektu askotan (paisajistikoa, soziala, kulturala, aisialdia...) ondorio kaltegarriak eragiten dizkio.

Erretoretxearen ondo-ondoan G2k proiektatzen duen biribilgune baten, begizta baten eta erreiek handitzearen konbinazioak "bizi espazioaren inbasio jasanezintzat" jo duzue, eta alternatiba proposatu duzue.

L.C.: Inbasio fisiko hori, akustikoa eta kutsatzailea izateaz gain, oinezkoen mugikortasuna trabatuko luke eta autoaren erabilera bultzatu, erabat. Konektibitateari eraso egingo lioke, sorabillatarron eta ibaiak bestaldeko herritarren arteko harremanak zailduko litzateke. Sorabilla isolatuta geratuko litzateke herritik, azken batean. Elkartean alegazioen atala landu dutenak lan bikaina egin dute, eta fotomuntaiekin erakutsi dute posible dela Inquitexeko parean bi biribilgune ipinita kalte arinagoa eragitea.

X.L.: Aldundiak 2011an aurkeztu zuen saihebidetaren proiektuak gauza berbera planteatzen zuten. Txanda hartan alegazioa jarri genuen, eta ontzat hartu zuten. Zer da, eta, orain, berriz

Sorabilla-Errotagain elkartearen sei alegazioak C2 proiektuari

Sorabillako lotunea

Elkartek ez du batere gogoko C2ak planteatzen duen biribilgunea. Zarataz gain, batik bat Sorabillari "bizi-espazioaren inbasio jasanezina" eragingo liokeela ondorioztatzen duelako. Eta ez da gutxirako: "Eraso espazial, akustiko eta kutsatzaile izugarria litzateke berez nahiko zigortuta dagoen ingurune humanizatu batentzat. Gure auzoko lasaitasun eta osasun baldintzak okertu egingo liriateke".

Elkartek alternatiba planteatzen du: irtenbidea industriguneko lursailera eramatea. Bi biribilgune proposatzen ditu, hirigunetik urrun eta tamaina desberdinekoak. Lehenbiziko biribilgunearekin, N-1 eta A-15 errepideetara sartzeko dagoen adarra mantentzea proposatzen da, "A-15 errepidera sartzeko soilik erabil dadin, eta N-1 errepidera Tolosako norabidean sartzeko trafikorako adar paralelo bat prestatzea, Uparan Industrialdeko pabiloietaraino hedatuko litzatekeena eta jatorria A-15 errepidearen eta Inquitex enpresaren zentral elektrikoaren artean izango lukeena".

Bigarren biribilgunea, "egun puntu horretan bertan gertatzen diren trafiko-itxaronaldiak arintzeaz arduratuko litzateke". Elkartearen ustez, konponbide horrek beharrezko errei kopurua lautik bira murriztuko luke. "Horrek ekarriko luke oinezkoentzako tunelari sakontasun handiagorik ez ematea, errepidea biztanleguneetara gutxiago hurbiltzea, oinezkoentzako irisgarritasun humanizatuagoa izatea, harresirik gabe, etab".

Kordoba eta Presagaina baserriak mantentzea

Aurreko alegazioan proposatzen duen bi biribilguneen alternatiba onartuz gero, bi baserriak zutik mantendu ahal izango liriateke. Aldi berean, elkartek eskatzen du bi baserri horien giza bizigarritasun duina mantentzea, eta indarrean dagoen Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren antolamenduan sartzea.

Errail kopurua handitzeari ez

Elkartek ez du beharrezkotzat jotzen errail kopurua handitzea: "Abiadura ertainarekin eta zaintza egokiarekin, nahikoa dira bi errail noranzko bakoitzean".

N-1etik urruntzea

C2 proiektuak Allurralde inguruan bihurtzea zuzentzeko lur-erazketa kontenplazten duela-eta, elkartek N-1 errepidearen trazadura zuzentzea eskatzen du. Era horretan, N-1aren ardatza ibaiaren aldera eramango litzateke, inor bizi ez den lursailera: "Errepidea nabarmen urrunduko litzateke Sorabillako bizigunetik, eta gutxitu bizilagunek jasaten duten kutsadura akustikoa".

Zarataren aurkako pantaila akustikoak eta zoru isilak

C2 proiektuak ez du pantaila akustikoak eta zoru isilak instalatzeko neurririk aipatzen, eta ez da jasotzen Eragin Akustikoaren Azterketak proposatutako neurririk: "pantaila akustikoak (hesiak) eta zoru isilaren erabilera zehatz-mehatz aztertzea eskatzen da".



C2 proiektuak Sorabillan, Erretoretetik oso-oso gertu, biribilgune bat eta begizta bat ipintzea eta errail kopurua handitzea aurreikusten du. SORABILLA-ERROTAGAIN



Sorabilla-Errotagain elkartek planteatzen duen biribilgune bikoitza. SORABILLA-ERROTAGAIN

Lur-erazketa Allurralden

"Allurralde pareko bihurtzea zuzentzeko aurreikusten duen lur-erazketak eragin handia izango lukeenez", elkartek

eskatzen du "afekzio hori ahalik eta txikiena izatea, abeltzaintza- edo nekazaritza-erabilera handiagoa eta hobea izateko".

ere orduko akatsa errepikatzen ari dira; ez dugu ulertzen zergatik. Igual uste dute Sorabillako biztanleak jada nekatu egin garela hainbeste urtetan proiektuak aztertzen eta alternatibak planteatzen jardun eta gero...

Kordoba eta Presagaina baserriak ez eraitea eskatzen duzue.

X.L.: Guk Inquitex parean planteatzen ditugun bi biribilgune horiekin, ez litzateke errailik erantsi beharko orain daudenei; hain zuzen, Tolosako norabidean nahikoak liriateke oraingo bi erreilak, eta hortaz, ez liriateke bota beharko bi baserri horiek.

Kordoba baserriak badu bere balorea, hirigintza-ondarearen katalogoan sartuta dago, babes-maila bat duen ondasun higiezin gisa. Eta Presagain baserriari

dagokionez, berriz, esan beharra dago lotsagarria dela azken 30 urtetan bertan bizi den familiak bizi izan duen bazterkeria. Eta salaketa horren adibiderik argiena, egun, baserri hori, 2011ko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorretik kanpo egotea da. Urtetan atzerago bagoaz, Plan horren aurretik, Udalak berak saihasbide bat planteatu zuen, zeinak Kordoba eta Presagain baztertzen zituen. Gure elkartek alegazioak jarri zituen orduan, eta Aldundiak guri arrazoia emateaz gain, Udalarari bi baserriak 2011ko Planean berriro integratzea eskatu zion, ez zenez aurrera atera 2011ko saihasbidearen proiektua. Bada, Udalak urte hauetan alde horretatik ez du ezer egin.

Zarataren arazoari dagokionez, pantaila akustikoak (hesiak) eta zoru isila jartzea aztertzeo eskatzen duzue alegazioetan.

X.L.: Bai, hori eskatzen dugu, baina iruditzen zaigu zarata ez dela arazo nagusia. Kontuan hartzen badugu autoen gurgilen eta asfaltoaren arteko kontaktuak eragiten duela zaratarik handiena, bada, etorkizun hurbil edo ertainera begira jartzen bazara, konpon liteke arazoa. Izan ere, hedatzen joango dira auto-elktrikoak, gidaritzatza autonomoko autoak, zoru isila (jada Europan zenbait tokietan ipinita dago)...

L.C.: Hori bai, behin N1ak egun jasaten duen trafikoa hizpide hartuz gero, hainbat arlo sakon aztertu beharko liriateke.

Hasteko eta behin, galdetu beharko dugu ea Andoaingen zergatik gauden kondemnatuak halako trafiko kopurua jasatera. Zergatik ez, alternatiba gisa, zenbait neurri aztertu, hala nola, abiadura kontrolatzea, garraio astuna autopistara bideratzea, garraio publikoa indartzea...?

Alegazioen epea amaituta, zertan jarraituko duzue aurrerantz?

X.L.: Azken urtetako lan ildoari eutsiko diogu, Sorabilla bizi diren auzotarren ongizatearen alde, Balastrinetik hasi eta Azpikolaraino luzatzen den auzoaren alde, eta beraz, Andoaingo herriko zati baten alde. Herriko udal ordezkariarekin, herriko elkartekin eta herritarrekin komunikazioari eutsi nahi

diogu, eta eztabaida espazio guztietan parte hartzeko borondatea daukagu. Demagogiak edo alper-harri zapaltzailea erabiltzeko tentaldia alde batera utzi, eta guztien ahotsak entzunak izango diren espazioen alde egingo dugu. Pedagogia egingo den eta gutxiengoaren hitza errespetatuko den eztabaidaguneak behar ditugu guztiok ere, nahiz eta jakin, gehiengoaren nahia nagusitu beharko dela prozesu horren amaieran. Zera daukagu argi, hobe dela demokrazia on bat errepide on bat baino.

L.C.: Nolanahi ere, kontziente izan behar gara honako bi errealitatez: egun plazaratzen ari diren irtenbide guztiek ez dute bat egiten, eta, guztiek ere kalteak eragiten dituzte, gutxi-asko.

Alkatearentzat onartezina da Aldundiaren oharraren edukia

Aita Larramendi ikastolako panelen harira, haserre agertu da Maider Lainez Andoaingo alkatea

Erredakzioa ANDOAIN

“Aldundiari erantzunez, harrituta gaude oharrarekin eta onartezina da Aldundiak une honetan Udalarari leporatu nahi izatea erantzukizuna, orain arte ezertxo ere egin ez duenean.

Uztailean, Aldundiak egitasmoa aurkeztu zuen, eta pantailak ikastolako lurren ondoan doazela ikusita, Hirigintzatik sailetik itxarotea aholkatu ziguten. C2 egitasmotik independentea bada uste badu Aldundiak azter

dezala beste auzo guztietan ere panelak jartzea. Hala nola, Míndin, Bazkardon, Sorabillan eta udalerriko beste eremuetan.

Udalak irailaren 2an erantzun zion Aldundiari alegazioak iritsi arte itxarongo zuela. Eta 12an oso argi agertu zen Udalaren jarrera zein den, C2ren egitasmoaren aurkakoa. Bitxia da biharamunean Aldundiak oharra argitaratzea. Herritarrek eskatu dutenari jaramon egitea eskatzen diogu Aldundiari. Errespetu instituzionala eskatzen dugu”.



Maider Lainez alkatea, asteazkeneko agerraldian. AIURRI

PRENTSA-OHARRA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA FORU ALDUNDIKO BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA

Beharrezkoak diren udal-lurrak ez jartzeak Aita Larramendi ikastolako pantaila akustikoak jartzea atzeratzen ari da

Gipuzkoako Foru Aldundia kezkatuta agertu da Andoaingo Aita Larramendi ikastolak N-I errepidean jasaten duen trafikoaren zarata arintzeko beharrezkoak diren pantaila akustikoak jartzearen atzerapena dela eta. Foru erakundeak gogorarazi duenez, proiektuaren idazketa ekainean amaitu zen, eta behar diren lurrak Andoaingo Udalak noiz lagako zain dago lizitazioa aktibatuta ahal

izateko. Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentutik gogorarazi dute pandemian behin-behineko premiazko neurriak hartu behar izan zirela N-I errepidearen zarata arintzeko ikastetxean; izan ere, ikasleek leihoak irekita zituztela eman behar izan zuten eskola, eta, ondorioz, zaratak, hotzak eta abarrek eragindako eragozpenekin. Aldundiak konpromisoa hartu zuen

lehenbailehen proiektu bat idazteko, ikastolako ikasle guztientzat beharrezkoak diren pantailak jartzeko. Konpromiso hori ikastolarekin eta udalarekin hartu zen.

Horiek horrela, ekainaren 17an Aldundiak Andoaingo Udalarari idatzizko eskaera ofiziala bidali zion aurreratu proiektua prest zegoela eta eskatuz beharrezkoak ziren lursailak lagatzeko, lursail

horien titulartasuna Udalarena baino ez baita. Erantzun ofizialik ez jasotzean, Gipuzkoako Foru Aldundiak berriro eskatu zizkion lurrak udalari, obrarekin hasi ahal izateko. Andoaingo Udalak irailaren 2an emandako erantzunaren arabera, Aita Larramendi ikastolaren aurrean zarataren aurkako hesiak jartzeko behar diren lursailak ez ditu lagako, Bazkardoren proiektuari

alegazioak aurkezteko prozesuarekin amaitu arte.

Gipuzkoako Foru Aldundiak argi utzi nahi du, bai ikastolaren aurrean, bai Andoaingo herritarren aurrean, ikastolako pantailen proiektua erabat independentea dela Bazkardoko bizikidetzaproiektutik, eta, beraz, udalak lurrak eskura jarri arte, ezin izango direla ikastolako pantailak jartzen hasi.

KOMUNITATEA

EH BILDU ANDOAIN

N-1: C2 izeneko proiektua baztertu ondoren, garai berri bat hasten da, zeinean proposamen berriak egin behar diren

Dagoeneko 3 urte eta erdi igaro dira Andoaingo EAJ-PNVk N-1 errepiderako proiektuaren lehen zirriborroa aurkeztu zuenetik, gaur egun C2 izenekoak. Harrezkero, kontaezinak izan dira hirigintzako batzordeetan eta osoko bilkuretan gai horri buruz egin ditugun galderak, eta proposamen horren edukia eztabaidatzeko egin ditugun eskaerak.

Gogoan dugu ere 2020ko ekainean, konfinamendutik atera berritan, mozio bat

aurkeztu genuela eta osoko bilkuran eztabaidatu zela. PSE-EEk eta EAJk atzera bota zuen. Gure taldearekiko deskalkifikazioak entzun behar izan genituen gainera, atzo beraiek plenoan defendatu zituzten antzeko argudioak defendatzeagatik.

Atzo, azkenik, udalbatzak irmo errefusatu zuen Aldundiak idatzitako proiektua, eta proiektua geldiaraztea eskatu zuen. Zorionak eman nahi dizkiegu modu batera edo bestera gai

hau eztabaidaren erdigunean jartzea lortu duten pertsona guztiei; zarataren aurkako sinadura bilketa, Sorabillako Auzo elkarteak, C2aren aurkako plataforma... Guztion artean eztabaida aberastu dute, eta lortu dute udalaren gehiengo zabal batek C2 proiektua geldiaraztea eskatzea.

Orain onartutakoa defendatzea dagokigu. Izan ere, ez da nahikoa onartutako ebazpena Aldundiari bidaltzea eta haiek erantzun arte itxarotea. Mozioaren helburua,

atzo Goikoplazan eskatzen zena, udalak gaurtik aurrera Aldundiari proiektu horren izapide guztiak geldiarazteko eskatzea zen. Ez dezala bide horretatik jarraitu esatea. Eta udalak estrategia aktibo bat diseinatu behar du, Aldundiari argi uzteko proiektu hori ez dela egingo.

Garai berri bat ireki da Andoainean. Aldundiari proiektua geldiarazteko eskatzen zaion aldi berean, Andoaingo udalak, dauden arazoak konpontzeko proiektu

bat diseinatzen hasi behar du. Udaleko talde teknikoak ezarri dituen irizpideak mahai gainean daude. Eta, irizpide horien arabera, proposamen bat egin behar du.

Horretarako, funtsezkoa da lehenbailehen lanean hastea. Alderdi politikoak, udal-teknikariak, auzo-elkarteak, enpresak, lan-dinamika bateratu bat antolatzeke unea da, N-1 errepiderako eta Andoaingo etorkizunerako proposamen berri bat egiteko helburu bakarrarekin.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ekainean aurkezpena egin zen Bastero Kulturgunean, udazkenari begirako asmoak agertzeko. Orduko hartan Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko kideak izan ziren solasean aritu zirenak, eta besteak beste udaberriaz geroztik martxan izan den Euskaraldiaren Txokoaren xehetasunak eskaini zituzten.

Egun hartan, Ainhoa Manterola udalekuetan zebilen, begirale gisa. 22 urteko gazte andoainarra udan hainbat orduz lanean aritu da Euskaraldiko barne prestaketa lanetan eta, irailaz geroztik, dinamizatzailea da.

Hasteko eta behin, Ainhoa, Euskaraldiaren aurkezpen festa iragartzen ari zarete. Zergatik aurkezpen festa irailaren amaieran?

Batez ere irailaren 28an Euskaraldian norbanakoaren izen-emateko epea zabalduko delako.

Ahobizi eta Belarriprest modura parte hartzeko asmoa egun horretatik aurrera agertu behar da. Girote aldera, aurkezpen-festa antolatzea erabaki genuen udan Euskaraldiaren bueltan ibili garenok. Tartean dira aurreko edizioan batzordean aritutako partaideak eta Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko zuzendaritzako kideak. Euskararen Normaltasunerako Batzordearekin harreman zuzena eta etengabea dugula erantsi nahi dut. Aldi berean, kontutan hartu behar da aurreko edizioa pandemia betean izan zela; ekitaldiak kalean egiteko asmoa dugu. Aurrekoan, sozializatzeko mugak agerikoak ziren, eta ariketa soziala martxan jartzea zailagoa izan zen. Kasu honetan kaleak euskaraz aritzeko espazio bilakatu nahi ditugu. Andoainen kalea arigune bilakatu nahiko genuke.

Udan dinamizatzaileei begira bilerak eta tailerrak izan dira eta zeuk horietan parte hartu duzu. Hitzordua horietan mezua argia zen: Euskaraldia kalera atera behar da.

Hori da. Lehenengo edizioan Euskaraldiak indar handia hartu zuen eta bigarrena pandemiak baldintzaturikoa izan zen. Kaleak berriz hartu nahi dira. Ez dezagun euskaraz har dezakeen ikusgarritasuna mugatu. Txapak jantzita ikusi nahi ditugu herri-kideak, eta solasaldiak sustatu. Martxan dagoela erakutsi behar diogu herritar orori, Euskaraldia posible egin ahal izateko.

"Kaleak euskaraz aritzeko espazio bilakatu nahi ditugu"

AINHOA MANTEROLA PAVO ANDOAINGO EUSKARALDIKO DINAMIZATZAILEA

Euskaraldiak lehen pausoak eman ditu, eta abiada bizia hartu nahiko luke hurrengo asteetan. Giroa berotze aldera aurkezpen-festa antolatu dute



Ainhoa Manterola, Euskaraldiko dinamizatzailea. AIURRI

Egitarauaz hitz egin dezagun. Musika emanaldiak eta herri afaria iragarri dira. Hasteko eta behin, Maizorri txalaparta taldeak hasiera emango dio ospakizunari. Saioa eskainiko dute Plaza Morean. Elektropottotte elektrotzaranga ariko da zuzenean. Haien berri emango al zenuke?

Elektrotzaranga bat da, sortu berria. Neska gazte talde batek osaturikoa. Eskualdeko partaide ugari daude bertan, eta Andoaingo bi kide horien artean: Itxaso Sanchez eta Nagore Huitzi. Garrantzia eman nahi izan diogu horri. Elektrotzaranga batean partaide guztiak emakumezkoak izatea ez da ohikoa, eta hori ere kontutan hartu nahi izan dugu.

Mulambo perkusio taldea ere ariko da.

Aspaldian Santa Krutz jaietan aritutako taldea da, doinu afrikarrak ondo baino hobeto eskaintzen dituenak. Tartean Andoainen bizi den Oihana Sanchez taldekidea dago, eta giro ederra jarriko dute Kale Nagusian behera egingo duten Kalejiran.

Bokata-afaria ere iragarri duzue.

BOKATA-AFARIRAKO TXARTELAK 5 EUROTAN SALGAI IZANGO DIRA URRATSEN ETA ANAIK TABERNAN

Jaiari eman diogun kutsuagatik, partaide guztiak elkarrekin batu nahi ditugu Bekoplazan bokata bat janez. Gazteak, nerabeak, familiak, euskaltzaleak... Andoaindarrak batu nahi ditugu afarira. Musikak giroa izango da, eta, datorren astelehenean hasita, txartelak 5 eurotan salgai izango dira. Edariak eskainiko ditugu plazan bertan, postutxo bat jarrita.

Bekoplazan bertan izena emateko aukera egongo da, eta Euskaraldiko arropa erosi ahal izango da.

Gazteak bereziki erakartzeko ekimena izango al da?

Bai, baina ez egun horretan bakarrik. Egun hauetan ikastetxeetan aurkezpen festaren berri emango dugu eta nahiko gure irailaren 30ean gazte koadri-la ugari Bekoplazan ikustea. Horrez gain, udazkenean sartzean nerabeekin batera tailer praktikokoak martxan jarri nahi ditugu, Lasarte-Orian abian jarri zuten erredia erreferentziatzen harturik. Arantza Aguado euskara teknikariaren eskutik jaso genuen proposamena eta gogoz heldu diogu asmo horri.

Batzordea martxan dago. Aste honetan bertan bilera bat egin da. Zer egin behar da parte hartzeko?

Interesa duenak bileretan parte har dezake, ekarpenak jasotzeko prest eta gogoz gaudelako. Andoain@euskaraldia.eus e-postara idatziz jar daitezke gurekin harremanetan.

Lantokiak edota eraikin publikoak ahobiziak eta belarriprestak elkaritzeko espazioei arigune deitzen zaie. Zein asmo dago Andoainen, alor horretan?

Kultur eta kirol jardueretan, enpresan edo ostalaritzan entitateek bat egin behar dute Euskaraldiarekin. Eta euskaraz aritzeko espazioak zehaztu behar dituzte. Arigune deituko zaio espazio horri. Udan entitate ezberdinekin egin dugu lehen harremana, eta jarraipena eman nahi diogu hurrengo asteetan. Geroz eta arigune gehiago egonez gero, askoz hobeto.

Amaitzeko, zein da zure iritziz euskararen egoera Andoainen?

Egiteko asko dugu. Hautsi beharreko inertzia asko dugu. Ohitura dugu gaztelerara jotzeko eta erronka txikiak praktikan jartzeko garaia da, erdaraz egiten ditugun elkarrizketa horiek euskaraz ere egin daitezkeela erakusteko.



Cesar Sanchez, Olatz Iturzaeta, Estela Cuevas eta Fran Bravo Etxeberri elkarteak. AIURRI

“Giro ona eta festarako gogoa bilduko dira Etxeberri plazan”

ETXEBERRI PLAZA ETXEBERRI ELKARTEA

Haurretatik hasi eta adinekoetara bitarte, Etxeberri plazara gerturatzeko aitzakia izango dute herritarrek asteburuan: badatoz berriro ere Etxeberriko festak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hiru urteko parentesiaren ostean, bueltan dira Etxeberri plazako festak. Asteburu batez, hilaren 16tik 18ra bitartean, jaigiroan murgiltzeko gonbita luzatu dute auzokideek, antolatzaileek, hain zuzen ere, Etxeberri elkarteak kideek.

Ate joka dira Etxeberriko festak, baina zuek aspalditik zabilzate buru-belarri lanean. Nolako izan da berriro ere antolakuntza lanei martxa hartzea?

Estela Cuevas: Azkenak 2019. urtean ospatu genituen. Gogo biziz gaude, baina egia da apur bat kosta egin zaigula prestaketa lanean abiatzea. Gainera, aurten, berrikuntzak txertatu dizkiogu

"OSTIRALEKO ETA LARUNBATEKO OSPAKIZUNEI IGANDEKOA BATU DIOGU AURTENGOAN"

egitarauari, esate baterako, lehen, ostirala eta larunbata izaten ziren; orain, oster, igandea ere batu zaio festari.

Fran Bravo: Hiru urte pasa ondoren, bada, pentsa zein nolako gogoak ditugun. Harremana mantendu dugu hiru urteotan, eta, noizbehinka, elkartu egiten gara; ondorioz, jarraipena eman diogu taldeari eta dinamikari. Estelak esan duen bezala, pixkanaka-pixkanaka egin dugu, ondo funtzionatu duten hitzor-

duak mantentzen eta proposamen berriak bermatzen.

Gainerako hilabeteetan, Etxeberri elkarteak kideak gelditu egoten ez bazarete ere, datorren asteburua da zuentzat antolatzen duzuen hitzordu inportanteena.

E.C.: Oso gogotsu nago. Jendeak Etxeberriko jaiengatik galdetu digu azken boladan eta antolatuko diren gauzengatik. Gainera, herriko ospakizunei irikiera ematen diote Etxeberriko jaiak, ondoren, Sanmielak zein Xoxokako festak baitatoz.

Cesar Sanchez: Pandemia garai-ko urteetan, zenbait ekimen antolatu ditugu, utzi diguten beste. Biziki gogotsu gaude antolaketa lanean gabiltzanok! Herri osoa dago gonbidatuta etortzera, baita ingurukoak ere. **Nori zuzendutako jaiak dira Etxeberri festak?**

F.B.: Guztiontzat egindako jaiak dira Etxeberriko festak, eta hortik doa gure proposamena ere: adin guztiei begira aritu gara lanean, haurretatik hasi eta adinekoetara bitarte.

E.C.: Aurreko urteetan, 15-30 urte bitarteko publikoa kanpo gelditu delakoan naiz. Bada,

"GUZTIONTZAT EGINDAKO JAIK DIRA ETXEBERRIKO FESTAK, ETA HORTIK DOA GURE PROPOSAMENA"

horri ere erantzun diogu, eta, gainera, herriko jendeak parte hartuko du plaza girotzen.

Zerekin egingo dute topo plazara gerturatzeko direnek?

C.S.: Giro ezin hobearrekin egingo dute topo herritarrek, gozatzeko eta ondo pasatzeko gogoz dabilen jendearekin. Giro ona eta festarako gogoa bilduko dira Etxeberri plazan.

E.C.: Etxean bezala sentitzekoak eta sentiaraztekoak gara; ez zaigu zertan guztia hamarreko atera; inprobisatzen ere bada-kigu.

F.B.: Alegia, egitaraua prest badugu ere, unean unekoari ere erantzuten badakigu. Jendea oso gustura dago antolatzen dugunarekin.

Berrikuntzekin zatotzela aipatu duzue. Adibidez?

E.C.: Super H-ren elkarlana dugu aurtengo festetan. Normalean, beren festa propioa ospatu ohi dute irailean, eta, aurten, gurea batuko dira. Igandea ere, esan dugun moduan, proposamen berria da. Arratsaldeko zirko-ikuskizunari lotura emateko, umeei begirako plastiko irris-tagarria jarriko dugu.

Festak iragartzeko kartelean babesle asko ageri dira, tokiko komertzioak.

C.B.: Dirutan lagun ezin badute ere, nor bereetik ematen du, jaiak osatzeko, eta asko eskertzen da, garesti irtetzen delako horrelako ekintzak antolatzea.

Jai giroa Urrietako beste espazio batzuetara zabaldu duzue.

E.C.: Jaiak antolatzen ditugun laugarren aldia dugu aurten. Polita litzateke auzoek beren jaiak berreskuratzea. Lehen, adibidez, Urrakan ere izaten zen zer ospatua. Hasi ginenetik, Udalak ere gure plazan ekintzak antolatzeko pausua eman du.

C.S.: Lan handia eskatzen du antolaketa. Baina gogoz egiten dugu, gozamenetik. Horregatik, inork batu nahiko balu, izan auzokidea ala ez izan, gure ateari beti irekita izango dira.

F.B.: Lana da, baina asko gogobetetzen du. Auzoko festak gertukoak dira, zure betiko espazioetatik irten eta elkarren artean ezagutzeko aukera proposa, jai giroan murgilduta.

Hortaz, giro polita biltzea aurreikusten duzue plazaren bueltan datorren asteburu honetan.

C.S.: Gurera etortzeko gonbidapena luzatu nahi diogu jende-ari. Animatu daitezela!

"Ekarpentxoa egin nahi diogu euskalgintzari"

KOLDO TAPIA KANTAZAUN

Kantu bazkaria antolatu du Kantazaunek Sanmielei begira urriaren 2an. Sarrerak eskuragarri daude jada, irailaren 27ra bitarte

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Sanmielen azken txanpan, urriaren 2an, aurreko egunetako ospakizunen ajea kentzeko proposamena du Kantazaun ekimena: igandearekin, kantu bazkaria antolatu du, txosnagunean, eguerdiko 14:00tan.

Ospakizunari amaiera emateko, kantu bazkaria antolatu duzue jaien azken egunean. Nondik dator proposamena?

Pandemia aurretik hasi ginen lanean, nolabait, herrian euskal giroaren apaltasuna ikusita. Gutxienez, euskal kulturaren tradizionalki kantuari izan diogun abegikortasun hori dela eta, kantuzaleak garen batzuek elkarri begiratu genion eta... "Zergatik ez gara kantuan kalera ateratzen? Zeren zain gaudete? Norbaitek esan behar al digu?". Horrelaxe abiatu ginen, baina pandemia etorri zitzaigun gainera. Halere, itzuleran, egoera baretzean, berriro ekin genion, formalitate pixka batekin. Eta, orain, ikasturtearen hasiera medio, egokia iruditu zitzaigun Sanmieletan zerbait berezixea goa egitea: ondorioz, bazkari bat antolatzea pentsatu genuen kantuauren laguntzarekin, baina, batez ere, herririko euskaltzaleek batzeko, oso egoera dispertso eta sakabanatuan gaudelako



Koldo Tapia. AIURRI

Urnietan, euskaldunok kohesio-natuko gaituen bitartekorik edota tresnarik gabe.

Hutsune horri erantzuteko asmoz dator zuen proposamena, kantu bazkaria.

Ekarpentxoa egin nahi diogu euskalgintzari. Badakigu adineko jendea garela, gazte jendearen proposamena ez baitoa euskal kantagintza tradizionalaren bidetik. Baina, tira, guri hori gustatzen zaigu, euskaldunak gara eta euskal kulturaren ekar-

pen hori bizirik mantendu nahi dugu. Gozatu egiten dugu guk, eta horrelaxe jarraitu nahi dugu, euskaraz egindako zerbaitekin. **Zure ustez, gazte belaunaldia ere gerturatuko al da bazkarira?**

Zail xamarra ikusten dut hori. Uste dut errealistak izan behar garela eta ulertu belaunaldi bakoitzak bere ekarpenak egingo dizkiola euskalgintzari. Gure aurrekoekin alderatuta, beste urrats bat eman genuen guk, eztabaidekin. Belaunaldi gazteak

beste egoera batean ikusten ditut; hobe? Okerragoa? ez dakit, "ezberdina" esango nuke gehiago. Horrek gu nolabait lainotutako egoera batean bezala jarri gaitu: euskaldunak gara eta, momentu batean, ez dakigu non gauden, eta ez dakigu ia nora goazen ere. Horren harira, gure kulturaren kolektiboan funtzionatzea izan dugu ohituratzat, alegia, komunitate kohesio bat derrigorrezkoa dugu. Herrian gaudenok urrats hori emateko nahia dugu. Horrenbestez, gazteak bazkarira datozela? Etor ditezela! Beste proposamen bat dutela? Gu oso gustura joango gara! Ez goaz gazte jendeari esatera "hau da egin behar duzuen". Elkargu-neak bilatuko ditugu nor bere proposamenetik.

Hain justu ere, kohesioari heltzeko modua musikatik eta kantutik egingo duzue urriaren 2an. Herritarrekin batera, zein bertsolari eta musikari izango dira?

Aitor Mendiluze eta Nerea Elustondo bertsolariak izango dira gurean, eta, aldiz, musikan, Aitor Atxega eta Imanol Kamio. **Zein kantu-zerrenda abesteko aukera izango du bazkarira gerturatzeko denak?**

Kantazaun gisa, bere garaian, argitara atera genuen liburukako 30 bat abesti izango dira. Horren bueltan arituko gara, gutxi gorabehera: euskal kantagintza tradizionala, garaikideagoak diren beste zenbait kantarekin nahastuta.

Interesa duenak zer egin behar du zuten hitzordura joateko?

Telefonoz deitu daiteke (661 009 516 eta 686 065 113) erreserba egiteko, edo, bestela, Bikain kafetegian zuzenean txartela eskuratu dezake, 28 euroren truke, hilaren 27ra bitarte.

Bertso afariko txartelen salmenta, martxa onean

Irailaren 23an izango da Oianumen, Maialen Lujanbioren eta Amets Arzallusen eskutik

Erredakzio URNIETA

Herriko festen ohiturak berreskuratzeko martxan, hementxe da urnietarren ospakizun egunen bezperako bertso afaria. Hilaren 23an, ostiralarekin, iluntzeko 20:00etan, errimez gozatzeko aukera izango dute bertsozaleek, Oianumen egingo den afariaren bueltan, Poxta Zahar elkarteak eta Aiurrik antolatuta. Amaia Agirrek gidatuta ariko dira kantari Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak. Sarrerak oraindik eskuragarri daude Urnietako Matxo, Kantoi eta Oianumen; eta, Andoainen Ernaitza liburu-dendan nahiz Aiurri berran.

Aurreko urteetan hitzordu jendetsua izan da beti, eta aurreko ere horrelakoxea izatea espero dute antolatzaileek.

Menua dela eta, oharra

Antolatzaileek adierazi nahi dute menu vegetarianioa aukeratu egongo dela, beti ere interesa duenak aurretik eskatu gero. Irailaren 20a bitarte menu vegetarianioa nahi duen bertsozaleak posta elektronikoko bidez jakinarazi beharko du urnieta@aiurri.eus emailera idatziz.

Gainerakoek sagardotegiko menuaz gozatu ahal izango dute.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeze ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondoa.

Maketzaileak: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Andoni Urbistondo URNIETA

Bost urte, urte asko dira. Batez ere gai beraren inguruan bueltak aritzeko. Zer esanik ez gai hori arantzatsua bada, norberaren sentimenduengan eragin zuzena baldin badu. Jokin Lizeagari bizitza aldatu zitzaion bost urte atzera, jakina da hori. Jakina da, era berean, gutxiasko, Asturiasko proba hartan izandako erorketa larriak oinaze asko utzi dizkiola; mila osasun arazo, ziurgabetasun franko eta zalantza pilo. Ibiltzeko komeriak, eta gehien maite duena egiteko ezina. Mendian korrika egitea izan da urnietarraren ihesbidea azken hamarkada eta erdian, eta hori egiteko aukerarik gabe umezurtz sentitu da azken bost urtekoan.

Jokin bera ernegatu antzean zebilen sarri, jendearen betiko galderari betiko erantzun etsigarria eman beste erremediorik ez: "Zer moduz habil? Hobeto? Mendian korrika egiten hasi al haiz?". Eta jendea, gu, edonor, betiko galdera egiteko prestu. Eta Jokin bera, adeitsu, denei erantzuten, tabako makinen pare, esker mezua ematen bezeroak tabakoa erosi ostean. Hitz hauen egileak aspaldi utzi zion galdetzeari. Galdetzeak deseroso sentiarazten baitzuen Jokin. Nobedaderen bat izatekotan, etorriko zen, eta kontatuko zuen.

Urteko lehen zortzi hilabetetan dozena bat solasaldi izango nituen Jokinekin. Umeak ikastolara zeramatzala, kale bueltaren batean, beste batzuetan watsap mezuren bat... Bere osasun egoeraz gauza gutxi. Galdera bat, erantzun bat eta kito. Asteak pasa egiten dira, hilabeteak, oporrak han eta hemen... Udan jendearen arrastoa galtzen da. Ikasturte hasieran, bat-batean, mezu bat herriko mendi korrikalarien taldean. Ainhoa Jauregiren mezua, Ubiden zegoen mahai-inguru batean parte hartu behar zuela Jokinek, eta gero bertako Ubidestroik lasterketa korritu. Hara hurbiltzeko gonbitea egin zuen Jokinen bikoteak.

Pasa den asteen kalean topatu nintzen Jokinekin. Elkarrizketatxoan bota nion, txantxetan: "Irabazi egingo duk, agian?". Berak, ironiaz: "Bukatzen baldin badiat nahiko!". Horrelaxe geratu zen kontua. Pasa den larunbatean, irratian lanean, beste watsap bat mendi korrikalarien taldean, argazki batekin.

Sinesten zaila da, baina bueltan da Jokin Lizeaga

Urnietarrak dortsala jarri eta mendi lasterketa bat osatu ahal izan du istripua izan eta bost urtera; oinazetik gabe korritu ahal izatea plazer izan omen da berarentzat, baina zuhurra da, mantso joan nahi du. Ubidestroik proban bigarren sailkatu zen



Ubidestroik lasterketan ateratako argazkian, Jokin Lizeaga kirolari handia. JAUREGI

'Jokin Lizeaga bigarren iritsi da Ubideko proban', zioen watsap-ak. Aho bete hortz geratu nintzen. Nagusiari esan nion, eta Jokini berari audio bat eskatu ziola, arratseko Hiru Erregeen Mahaian sartzeko. Elkarrizketa egingo niola esan nion nagusiari, eta han erantzun zuen Jokinek, beti bezain adeitsu.

Bigarren postuan helmugatu zelako pozik ote zegoen galdetu, eta baiezkoa bota zuen, noski, baina garrantzitsuena ez zela postua bera, podiumera igo izana, berriro lehiakideekin elkartzea eta mendi lasterketen saltsa bizitzea baizik. Lasterketa bezperako astea gogorra izan zela onartu zuen Jokinek, hango eta hemengo min batzuk izan zituela, baina lasai atera zela, atzetik aurrera egiteko asmoz. Helmugan Hassan Ait Chaou laguna eta garailea besarkatu eta gustura sentitu zen: "Hezur guztiak bere lekuan, giharretako mina bakarrik, baina ondo, horiek pasako dira".

Maiatzean oinez ibili ezinik zen

Bost urte dortsalik jarri ezinik, oinazeak jota, eta parte hartzen duen lehen mendi lasterketan, bigarren postua. Akaso ez da izango Euskal Herriko lasterketa entzutetsuena, Ubidekoa, baina jakina da edozein probetan bigarren sailkatzea aski zaila dela, zer esanik ez bost urte lehiatu ezinik egin eta gero. Hotzean, hausnarketa zintzo hau egin zuen irratian Jokinek: "Maiatzean ibili ezinik nengibilen, minez jota. Tratamendu bat hasi nuen, eta nonbait hezurak bere onera itzuli dira. Minik gabe, orain bost urte neukan bizitza zorionsu hartara, bete hartara bueltatzea izan dut buruan, obsesio bilakatu arte. Dortsalarekin korrika egin nahi nuen berriro, kosta ahala kosta, eta lortu dut. Bukatzean den uda aspaldiko onena izan da, olatu ona hartu dut eta gustura nago". Behin hasita, hasitakoa jarraipena eman nahi lioke Lizeagak, baina kontziente da mantso eta pausoz pausoz egin behar duela: "Gaur ondo nago, baina bihar

"MINIK EZ DUDAN BITARTEAN, HERRIKO MENDIETAN BARRENA IBILI NAHI NUKE BERRIZ"



Hassan irabazlea, Jokinekin batera. Biak, pozarren. Haiei begira Negu, Jokinen semea.

ondo izango ote naizen ezin jakin. Ez daukat batere bermerik, eta bihar akaso hezurretako arazoak, oinazeak bueltatzen dira, eta herrenka ibili behar dut. Minik ez daukadan bitartean herriko mendietan barrena ibili nahi nuke berriz. Buruntza, Adarran barrena, lasai, gozatzen, eta ahal izanez gero beste probaren bat korritu, udazkenean mendiak zuritu aurretik. Noski, irabazteko aukera baldin badut, are hobeto. Motibazioa biderkatu egingo da”.

Lizeagak ez dio erreparatu proben egitarauari, non korritzeko aukera izango duen hurrengo hilabetean, baina egutegia begiratu gabe ere badaki non aritu nai lukeen: Galdeano-ko Basajaun lasterketa, Nafarroan. Lasterketa hori Sergio Aramendia korrikalariak antolatzen du, Asturiasko istripuan Jokini laguntza, babeseta eta epel-

tasuna eman zion korrikalariak urtero galdetu omen izan dio Jokini, Basajaun lasterketa korritzera animatuko ote zen, probari distira pixka bat emate aldera, eta beti ezezkoa: “Beti erantzuten ezin nuela, herrenka nembilelako, edo oinazeak jota. Zorretan egon eta zorrak kitatu ezin egotea gogorra da, eta aurtentzen zor horiek kitatzea espero dut”.

Duela hamar egun idatzi zion Lizeagak Aramendiari: ‘Aurtentzen korrika nabil, Sergio, ea urritara arte irauten dudana’, bota zion. Beti bezain zuhur, hilabete eta erdi epe luzea baita Lizeagak adina sufritu duen kirolariarentzat. Egun asko, bere osasun egoera ez txartzeko esperantzarekin. Ahal badu, egingo du, bost urtetan ez badu etsi, ez duelako hilabete eta erdian etsiko. Sinesen zaila da, bana Jokin Lizeaga bueltan da. Ea luzerako den!!!

Mendi Film Tour Urrietan, irailaren 22an

‘Amagana’ iazko ekitaldiko euskarazko film onena izendatu zuten eta ‘Mendiak 1976’ mendiko film onena eta Ikusleen Saria; 19.00an da hitzordua. Zanpatuz elkarteak antolatu du, Urrietako Udalaren babesarekin

Andoni Urbistondo URNIETA

Mendi Film Tourra gurean da berriro. Euskal Herriko eta Nazioarteko mendiko ikus-entzunezkoen jaialdi onenetakoak geltokia egingo du Urrietan, hurrengo astean. Hitzordua ostegunerako da, 19:00tan hasita Saroben. Sarrera doakoa da. Iazko ekitaldiko euskarazko film onena, eta mendiko film onena eta ikusleen saria jaso zituen ekoizpena ikusi ahal izango dira Saroben. Mendizaleentzako pagotxa, zalantzarik gabe.

‘Amagana’ Itziar Zabalen filma da, Baltzolako kobazuloan bizi izandako gorabeherak dituen ardatz (Dima, Bizkaia). Onean eta txarrean. Bihotz Gorospek sortu ditu 14 minutuko ikus-entzunezkoa laguntzen duten musika piezak, eta euskarazko film onenaren saria jaso zuen. ‘Mendiak 1976’ da bigarren filma. Ordu eta erdiko iraupena du Luis Arrietak zuzendu eta Daniel Burgik idatzitako gidioiak, eta ikusleen bihotzeraino iritsi zen Mendi Film-eko azken ekitaldian, ikusleen saria jaso baitzuen. Ez zen sari bakarra izan, ekitaldiko mendiko film onenaren saria ere jaso baitzuen. 7.000 metroko mendi batera egindako lehen euskal espedizioa du ardatz filmak, Afganistango Shakaur mendira, hain zuzen ere (7.116 metro). Ekoizpenak Nafarroako mendizale talde batek hara egindako espedizioa du ardatz: gasetasuna, abentura, mendiekiko pasioa eta maitasuna, baina baita samina eta zorigaiztoko gertakariak ere, espedizioa kide bat, Leandro Arbeloa, jaitzieran jausi eta bertan zendu baitzen.

**DATORREN
OSTEGUNEAN
MENDIZALEEK
HITZORDUA DUTE,
SAROBEN**



‘Amagana’ Itziar Zabalen filma da. AMAGANA



‘Mendiak 1976’ ikus-entzunezkoaren irudietakoa. MENDIAK1976



Urrietako
udala

Urrizaren zortzigarrena, buruz burukoan

ERREMONTEA Berdintasuna nagusi izan zen Kutxabank Txapelketako finalean. Barrenetxeak eta Urrizak dena eman zuten, eta azkenerako txapela nafarrantzat izan zen. Egun, bi jokalarri onenak dira

Erredakzioa URNIETA

Javier Urrizak garaipen-zerrenda handitzen jarraitzen du, Kutxabank Torneoko zortzigarren txapela eskuratuta. Iruindarra azken hamaika urteetako txapeldun nagusia da; hamaika final jarraian jokatu ditu, eta horietatik zortzi irabazi ditu.

Oro har, final oso berdindua eta orekatua izan zen; neurri berdinean norgehiagoka gogorra eta bizia ikusteko aukera eduki zuten pilotazaleek. Barrenetxeari titulua defendatzea egokitu zitzaion, baina aurrekoan jazo bezala, faborittoa iruindarra izan zen. Partida berdintasunez hasi eta amaitu zen, inork ez zuen markagailuan ihes egitea lortu. Urrizak partidaren lehen tangoetan 3-6ko errenta hartu zuen, baina Barrenetxeak partida estu eramatea lortu zuen; sei, zortzi, bederatzia, hamar eta hamaika tantoetan berdinketa erakutsi zuen markagailuak.

Barrenetxeak sakea hartu zuen pilota biziago batekin eta saketik egindako hainbat tantorekin hartu zuen aurea 14-11. Urrizak ere pilota hori baliatu zuen hamabosna berdintzeko, sakearekin min handia eginez. Barrenetxeak lau tantoko gehieneko aldea hartu zuen (19-15), baina Urrizak tarte hori murriztea



Kutxabank txapelketako finala. ORIAMENDI

lortu zuen (19-19). Sakea erabakigarria izan zen tarte horretan bi pilotarientzat.

Azken hamarraldian berdinketa ugari jazo ziren, tentsio nabaria zen, inork ez baitzuen ihes egin; 21, 22, 23 eta 24na berdinduta egon ziren. Partidak xehetasunen arabera erabakitzen dira askotan, eta hala gertatu zen oraingoan ere. Edozeinek irabaz zezakeen eta biek merezi zuten. Urrizak pilotakada handi bat eman zion 24-25ekoan eta bi pareta eder batek bi tantoko errenta txikia eskuratu zuen. Barrenetxearen 25-26koaren ondoren, falta bat heldu zen

saketik. Hurrengo tantoan nafarrak zortea aldeko eduki zuen beheko txapa ukitzen zuen pilotakada batekin; ondoren, sake bizi batek garaipenaren atarian jarri zuen Urriza (25-29). Azkenean, Urrizak eskuratu zuen garaipena zenbait tanto borrokaturen ostean (27-30).

**JAVIER URRIZA
IRUINDARRA AZKEN
HAMAIKA URTEETAKO
TXAPELDUN NAGUSIA
DA**



LEIZARAN

Leizaran taldearen aurkezpena

Leizaranek aurkezpen ekitaldia egingo du hilak 16an Allurralden, arratsaldeko 19:00tan. Herritarrei bertaratzeko deia egin diete: "Ekitaldi polita antolatu dugu. Allurraldera gerturatzeko deia zabaltzen diegu". Larunbatean, berriz, aurrendenboraldiko txapelketa antolatu dute. Egun osoan zehar partidak jokatu dira Arraten eta Allurralden.



AJURRI

Aurrera doa Xoxokako txapelketa

Asteazkenean finalurrekoak jokatu ziren. Honako hauexek izan ziren partidak: Josu Mujika-Jon Pagola, alde batetik. Eta Xabi Ansa-Julen Loidi, beste aldetik. Lau jokalarri horietatik aterako da, beraz, aurtengo txapelduna. Aurreko asteetan Goiburuko frontoi txikian jokatu zen txapelketak auzotar ugariaren interesa piztu du.

Igoera jokoan du Libiak

Jon Jauregi eta Imanol Olasagasti partaide diren Libia ARC1 txapelketako irabazleak dira eta ACT mailara igotzeko lehian dira. Garrantzia handiko bi estropada gainditu beharko dituzte, asteburu honetan. Biak ere Bizkaiko kostaldean izango dira. Larunbatean Bermeon eta igandean Portugaleten. Denboraldia borobiltzeko aukera dute.



SANPEDROTARRA



andoaINDARRA
euskaraz



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Vueltako notak 10etik Ora

Hiru asteko lehiaketaren bilduma noten bitartez. Goazen!

10: Remco Evenepoel. Onena. Gorantz eta erlojupekoetan. Ondo iritsi den lehen itzulian lortu du garaipena, eta maillot gorria ez da kolokan egon inoiz. Bi urte eskas dira Lombardiako Giroan sekulako muturrekoa hartu zuenetik. 22 urterekin meritu handia du, ikuskizun etorkizunean noraino irits daitekeen.

9: Juan Ayuso. 19 urte, podiuma. Harribitxia. 119 urteko historian podiumera igotzea lortzen duen historiako txirrindulari gazteena da, eta hori sekulako datua da. UAE-n badute Pogacar-en ordezkoa.

8: Enric Mas: Ez zait berak eta Movistar-ek korritzeko duten molde *seguro*la gustatzen, baina bigarrena izan da inork espero ez zuenean. Akaso ez du antzeko beste aukerarik izango Vuelta handi bat irabazteko, baina puntuen premia gorriak sobera ez arriskatzera eraman du Mallorcako txirrindularia.

7. Primoz Roglic: Txapeldun handi bat. Erorketa batek ebatsi dio Vuelta laugarren jarraian irabazteko aukera. Lortuko al zuen, azken egunetan? Ez dugu jakingo, baina beste inor baino gehiago saiatuko zela ziur, bigarren edo 12. sailkatu, garrantzi bera duelako berarentzat.

6: Pedersen, Carapaz, Vine: Hiru etapa eta erregularitasunaren maillota danimarkararentzat. Beste hiru etapa eta mendiko maillota Carchiko lokomotorarentzat. Vine-ek hegan egin zuen Vueltako lehen astean. Distira eman diote Vueltari.

5: Thymen Arensmann: Ibili egiten da lodi Herbehereetako zainzuria. Gorantz onenengandik gertu, bakarkako lanean ere txarra



Bizkarra eta Iturria urnietarra, Vuelta amaitu berritan. EUSKALTEL

ez. Zaindu bere jarduna etorkizunean.

4: UAE-Emirates taldea eta Matxin kirol zuzendaria: Podiuma lortu dute, Top 5a Ayusorekin, eta bi etapa garaipen Marc Soler eta Juan Sebastian Molanorekin. Datu horien gainetik, jarrera ausarta beti, inkonformista, txirrindularitza ikusgarria ekartzen duena.

3: Ander Okamika: Vueltako txirrindulari lehiakorrenaren saria eman behar zioten. Gutxienez dozena erdi ihesaldietan sartu da, eta neurri bikaina eman. Triatloi mundutik bizikletako tropel profesionalera pasa eta lan bikaina egiten ari da lekitzarra.

2: Ibilbidea: Txirrindulariei indarrak bukatu zitzaizkien bitartean ikuskizuna eman zuten, Vueltako lehen erdian, batez ere. Bigarrenean, ordea, txispa falta oso

**EVENEPOEL ONENA
IZAN DA, GORANTZ
ETA ERLOJUPEKOAN.
22 URTEREKIN
MERITU HANDIA DU**

agerikoa izan da, batez ere bi etapa gogorrenetan: Sierra Nevada eta Navacerrada. Izan ere, iraila barrurako garaia izan da betidanik txirrindularitzan, ziklistak muga-mugan iristen direlako.

1: Vuelta korritu, baina agertu ere ez diren guzti horientzat. Pertsonalizatu gabe, izen batzuk sobera ahalegindu gabe asmatuko dituzue... Bota izenak!

0: COVID protokoloa: Ulerkaitza da txirrindulari hainbatek lasterketatik kanpo geratzea positibo eman dutelako. Egund positibo izateak ez du sekulako arriskurik suposatzen, eta arautegia ez da garbia. Taldeek ere zeresana izan dute, zintzo jokatzeko konpromisoaren baitan emaitzak publiko egin dituztelako. Ziur askok ez dituztela jakinarazi, lasterketan jarraitu ahal izateko...

**ROGLIC TXAPELDUN
HANDIA DA.
ERORKETAK VUELTA
IRABAZTEKO AUKERA
EBATSI DIO**



Sari nagusia etxean geratu da, aurtengo edizioan. EUSKALDUNA

Euskalduna taldeak irabazi du Larramendi txapelketa

Futbolzale ugari bertaratu ziren denboraldiko lehen txapelketa bertatik bertara ikusteko

Erredakzioa ANDOAIN

Andoingo futbol taldeak XLVIII. Larramendi txapelketa irabazi zuen, hiruko lehiari Billabona eta Amara Berri taldeak gaindituta. Billabona bigarren postuan sailkatu zen eta Amara Berri hirugarrenean.

Larunbat honetan, goizeko 09:00tan hasita, Iñaki Gurrutxaga omentzeko memorialela jokatuko da Ubitarte zelaian. Duela urtebete zendu zen futbolzalea eta Euskaldunako zuzendaritza taldeko kidea omentzen duen lehen edizioa izango da.



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 16

ANDOAIN Outlet kalean

Andoingo dendarien eskutik, produktuak prezio hobean erosteko aukera izango da.
Irailak 16 eta 17.

URNIETA Etxeberri plaza jaietan

Egitaraua prest dute Urnietako auzunean:

18:30 Txupinazoa.
19:00 Apar-festa.
20:30 Kontzertuak.

LARUNBATA 17

ANDOAIN Ikuszkirus

"Urbasa" ikuskizuna, Hutsun eta Orzi konpainiaren eskutik. Indarraren eta teknologiaren bidez hautsiko da arnasa lasai hartzen duen mendian.
18:00, Leitzarango Otieta parkea.

URNIETA Etxeberri plaza jaietan

11:30 Adin guztientzat Ginkana.
13:30 Herri bazkaria.
17:00 Bingoa.
19:00 Pintxo lehiaketa.
20:00 Kontzertua.
21:00 Herri afaria + DJ Maik.

IGANDEA 18

URNIETA Etxeberri plaza jaietan

12:00 Txirristra irristakorra.
18:00 Zirkus ikuskizuna.

ANDOAIN Ikuszkirus

"Do Not Disturb", Andaluziako Vaiven Circo konpainiaren eskutik.
19:00, Goikoplaza.

OSTEGUNA 22

URNIETA Mendi Tour

Informazio gehiago 11. orrialdean.
19:00, Sarobe.

OSTIRALA 23

URNIETA Bertso afaria

Aiurrik eta Poxta Zaharrek antolatuta, eta Urnietako eta Andoingo Euskaraldiak babestuta. Txartelak salgai Kantoin, Matxon, Oianumen, Aiurri eta Ernaitzan.
20:00 Oianume.

ESKUALDEA Matrikulazioa

AEKren eskutik aukera zabalda.
Azken eguna: Irailak 23.

ANDOAIN Euskara


Euskara eskolak merkatari eta ostalarientzat. Info: 943 59 17 04.
Azken eguna: Irailak 23.

LARUNBATA 24

URNIETA Dantza

"Egape debi dantzan" ikuskizuna.
19:00, Sarobe.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

El test

Lar, 17. 19:30, 22:00.
Ig, 18. 19:30.
Asti, 19. 19:30, 22:00.
DC Liga de supermascotas
Lar, 17. 17:00.
Ig, 18. 17:00.

El cuarteto

Ostg, 22. 18:00.
Alzheimerri buruzko jardunaldiak. Doakoa da sarrera.
Modelo 77
Ost, 23. 20:30.
Lar, 24. 19:30, 22:00.
Ig, 25. 19:30.
Asti, 26. 19:30, 22:00 (ikuslearen eguna).



SINOPSISIA



EL TEST

Zuzendaria: Dani de la Orden. Aktoreak: Alberto San Juan, Miren Ibarburen, Blanca Suarez, Carlos Santos, Antonio Resines.
Herrialdea: Espainia. Generoa: Komedia. Iraupena: 105 minutu.

BERTSO AFARIA

IRAILAK 23, OSTIRALA

20:00. Oianume, Urnieta. 30€

Txartelak: Kantoi, Matxo, Oianume, Ernaitza, Aiurri



Maialen Lujanbio

Amets Arzallus

Gai-jartzailea: Amaia Agirre

EUSKARALDIA

ANTOLATZAILEAK

AIURRI



ONISTERRA

Poxta Zahar



laz abiatu zen ekimena. AIURRI

Merkatari eta ostalarientzako euskara eskolak

Gainera, %85eko asistentzia izanez gero, Andoaingo Udalak matrikularen zenbateko osoa itzuliko dizu

Andoaindarrak Euskaraz Komunitatea / ANDOAIN

Urriari hasi eta abendura bitarte, 60 orduko ikastaroa jasoko dute izena ematen duten merkatar eta dendariak. Oinarriko mailako ikastaroa izango da, eta aurrez aurreko eskolak eta etxeko lanak uztartuko dituzte. Asteazkenean ordubeteko saioa egingo dute euskaltegian. Ordua eta eguna zehaztu dute honezker, asteazkenean elkartuko dira arratsaldeko 14:00tik 16:00tara. Eta bitartean ikasleak bakarkako lanak egingo dituzte astean zehar.

Matrikula epea zabalik dago, eta interesa duenak datorren irailaren 23a baino lehen izena eman beharko du. Horretarako Andoaingo AEK euskaltegiara jo dezakete. Egoitza Plazaola kalea 2, behean dago. E-posta honakoa da: andoain@aekeus eta telefono zenbakiak, hauexek: 943 59 17 04 / 688 746 643.

Izen-ematea 125 eurokoa da, eta udalak dagoeneko aurreratu du erraztasunak emango dizkiena merkatariei. %85eko asistentzia betez gero, Udalak matrikularen zenbateko osoa itzuliko dio merkatariei.



AIURRI

Outlet kalean, asteburuan

Honako merkatalguneetara joanez gero, eskaintza bereziak topatuko dira ostiralean eta larunbatean: Amabi, Gloss, Durazno, Alice, Amantegi, Ormendi kirolak, Pottoko, Maindi, Xare, Iturbe, Gorostidi, Gamer, Izeia, Pepi, Cisneros, Gonzalez, Stop, Ernaizta. Bezeroaren Astea, bestalde, igandera bitarte martxan dago.

Matrikulazioa zabalik dago Urrietako AEK euskaltegian

HABEren eta Urrietako Udalaren dirulaguntzak jasotzeko aukera dago

Erredakzioa URNIETA
Urrietako AEK euskaltegiak 22-23 ikasturteari hasiera eman dio urriari eta irailean, eta abian jarri du matrikulazio-kanpaina hilaren 30 arte. HABEren eta Urrietako Udalaren dirulaguntzak jasotzeko aukera dago. Izena emateko edo informazio gehiago: urnieta@aekeus, 662 33 87 47 edo euskaltegian bertan (Errekalde kalea 1).

Zentzu honetan, Urrietako Udalak errolatuentzako dirulaguntzak eskainiko ditu, ordaindutako matrikularen %85 eta %100 bitartekoak, beti ere 600

euroko mugarekin. HABEek ere (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea) dirulaguntzak ematen ditu gainditu edo egiaztatu den maila bakoitzeko. Hala, udalak iragarri du bere dirulaguntza osagarria dela, alegia, batetik, HABEren "dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten herritarrei ordaindutako matrikularen kostua estali arteko dirulaguntza eman nahi zaie", eta, bestetik, "HABErengandik dirulaguntza jasotzeko eskubiderik ez duten herritarrei ahalik eta dirulaguntzarik handiena eman nahi zaie".

Ikastaroak Lekaion eta Saroben

Matrikulazio epea zabalik dago Lekaion. Helduei begira: joskintza, zur tailla, marrazketa eta pintura eta eskulanak. Bestalde, haurrei begira: joskintza, marrazketa eta pintura, eta eskulanak. Saroben, bestalde, funky eta antzerki tailerra eskainiko dituzte. Bi kasuetan izena eman beharra dago datorren irailaren 21a baino lehen.

SAN 2022 MIELAR

ASTEAZKENA, 28
20:00 TXUPINAZO ALTERNATIBOA
TRONKA BAZTERRIEN EGUTIA
LEAR
DJ ATXUKARRO
PERKUPLEN JONGARREN HAUSA

OSTEGUNA, 29
23:00 KYXO
THE RORISTAK
KYXO DJ SET

OSTIRALA, 30
23:00 LUKIEK
LIHER
EZPALAK

LARUNBATA, 1
16:00 HERRI BAZKARIA
17:30 ZUTTIK ELEKTROTX.
23:00 HERENEGUN
XIBERROOTS
DJ ALBABARRUNA

IGANDEA, 2
03:30 EGUZKI TXARANGA
19:00 NEREPE
AMATERRA

ZORION AGURRAK



URNIETA
Zorionak Jokin
Irailaren 19an hamar urte beteko dituzu!!! Ondo pasa eguna etxeko eta lagun guztiekin.

Urte askotarako

Aiurri.eus Zorion agurrak atalean
Whatsapp bidez: 619 16 35 37
diseinua@aiurri.eus
Arantzibia 4-5, behea Andoain
Telefonoa: 943 300 732

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Irailak 21, asteazkena.
URNIETA
16:30-20:30. Gaztelekua.

Urriak 10, astelehena.
ANDOAIN
16:30-20:30. Anbulatorioa

MERKATU-TXIKIA

IRAKASKUNTZA

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Ingelesko klase partikularak ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei irailetik aurrera eskolak etxean emateko. **650 34 11 08**

SALGAI

'Antiescaras' koltxoia salgai. **660 235 259.**
Etxeba salgai Andoainean, altuera handikoa. 47 m². Sukaldea eta komuna ditu. Uraren toma mangerarekin. **667 058 641.**

EROSI

Lursaila erosiko nuke Asteasu, Zizurkil, Larraul aldean. **671 31 68 63.**

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EUSKARALDIA

ANDOAIN

IRAILAK 30, OSTIRALA

Aurkezpen-festa

***Bokata-afariko txartelak salgai irailaren 19tik 26ra Urratsen eta Anaiak tabernan.**

BEGANOA AL ZARA?

Idatzi
andoain@euskaraldia.eus
e-postara



PLAZA MOREA BEKOPLAZA

ANDOAIN. EGITARAUA:

19:00 Plaza Morea
TXALAPARTA
Maizorri taldea.

19:30 Plaza Morea-Bekoplaza
PERKUSIOA
Mulamborekin kalejira.

20:15-21:00 Bekoplaza
AFARI MUSIKATUA
*Bokata afaria.

21:00-22:00 Bekoplaza
KONTZERTUA
Elektropottote.



ANDOAINGO UDALA



andoaINDARRA
euskaraz